



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 9a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00001. Interpelazioa, osasun-sistemarako irisgarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/POR-00280. Galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00281. Galdera, adingabeen artean alkohola eta kalamua kontsumitzen hastea eragozteko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00282. Galdera, Nafarroako ikasleek PISA txostenean izandako emaitzei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00283. Galdera, adingabeek joko-areto eta ostalaritza-makineterako duten irispidea kontrolatzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00284. Galdera, adingabeen pornografia-kontsumoari aurre egiteko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00001. Galdera, Ondare Zerbitzuak SODENA eta Nafarroako Inbertsio Institutuaren arteko bikoiztasunak ekiditeko gomendatutako jarduketei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00002. Galdera, N-121 A errepidearen proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00003. Galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko udalez gairako plan sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00004. Galdera, Foruzaingoaren Jardunaldien eta Ordainsarien Erregelamenduaren onespeneri buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00005. Galdera, bidaiarien garraio publikoarendako laguntzei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (8. or.).

- 11-24/POR-00006. Galdera, 2023ko enplegu-datuei eta arlo horretako 2024rako jarduketa-ildoei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00007. Galdera, autonomoei laguntzeko neurri fiskalei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00008. Galdera, herritarren arreta hobetzeko hartutako neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00009. Galdera, Emanzipa programari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00010. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00011. Galdera, sexu-indarkeriagatik eta tratu txarregatik haurrei eta nerabeei arreta integrala emateko sistemari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00012. Galdera, N-121 A errepidea hobetzeko eta egokitzeko lanei buruzkoa. Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00013. Galdera, ibilgailu hibrido eta elektrikoan matrikulazioa sustatzeko neurriei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00014. Galdera, etxebizitzaren alokairuaren merkatuari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00015. Galdera, Nafarroan enplegu-eskatzailen kopuruak izandako igoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00016. Galdera, justizia errehabilitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errehabilitatiboari buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00017. Galdera, Eliza Katolikoak erregistratutako ondasunak Hipoteka Legearen 206. artikuluan ezarritakoaren babesean berreskuratzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00018. Galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00019. Galdera, Nafarroari dagokionez PSOEek eta EH Bilduk Pedro Sánchez inbestitzeko lortutako akordioei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00020. Galdera, saltoki handiek igande eta jaiegunetan irekitzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00021. Galdera, Nafarroako edukiera handiko errepideetako bidesarien politikari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00022. Galdera, PSOEren eta EH Bilduren arteko akordioen ondorioz Nafarroak izanen dituen onurei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00023. Galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako herri-ondasunak identifikatzeko prozesuari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00024. Galdera, 0-3 zikloaren doakotasunari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00025. Galdera, Iruñean onetsitako zentsura-mozioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00001. Interpelazioa, osasun-sistamarako irisgarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako interpelazioa, osasun-sistamarako irisgarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du:

Gure foru-erkidegoko osasun-sistema aspaldi ari da erakusten gabezia handiak, besteak beste mugatzen dutenak herritarrek beharrezkoa duten osasun-laguntza jaso ahal izateko aukera.

Sendagile espezialistarekin hitzordu bat lortzeko txaron-zerrendak inoizko handienak dira, eta, kasu askotan, ez dute bermeei buruzko legea betetzen. Ebakuntza kirurgiko baterako nahiz zen-

bait proba osagarri egiteko itxaron beharreko denborak ere gainditu egiten ditu osasungintzan egindako inbertsioan buru den osasun-sistema baterako zentzuzkoak lirakekeen epeak. Halere, osasun arloko per capita gasturik handieneko autonomia-erkidegoen artean dago Nafarroa.

Gainera, jasotzen den Oinarrizko Osasun-laguntza gero eta okerragoa da –nabarmen igo da itxaron beharreko denbora–; hala geratzen ari da jasota herritarrek eskura dauzkaten tresnetan, esate baterako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko pazientearen arreta-zerbitzuan aurkeztutako kexa eta erreklamazioetan eta Nafarroako Arartekoari aurkeztutako kexetan.

Oinarrizko osasun-laguntza jasotzeko zailtasunaren ondorioz, presioa ospitaleko nahiz ospitalez kanpoko larrialdietara bideratu da, azken hilabeteotan arian-arian areagotu baita haien jarduera.

Horri guztiari gehitu behar zaio azken asteotan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan bertan behera gelditu dela osasun-zerbitzuren bat, profesionalak falta direlako.

Horregatik guztiagatik, osasun-sistamarako irisgarritasunaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diogu Osasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00280. Galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, I+G+b arloko inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nolako inbertsioa egin du azken urteotan ikerketa, garapen eta berrikuntzan?

Iruñean, 2023ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-23/POR-00281. Galdera, adingabeen artean alkohola eta kalamua kontsumitzen hastea eragozteko neurriei buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, adingabeen artean alkohola eta kalamua kontsumitzen hastea eragozteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa dugu gazteak alkohola, tabakoa eta kalamua lehenago kontsumitzen hasten diren Espainiako autonomia-erkidegoa.

Zer neurri zehatz hartuko ditu Osasuneko kontseilariak, eragozte aldera adingabeak alkohola eta kalamua kontsumitzen hastea?

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti

11-23/POR-00282. Galdera, Nafarroako ikasleek PISA txostenean izandako emaitzei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako ikasleek PISA txostenean izandako emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María

Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

PISA txostenaren arabera, nafar ikasleek txosten horren historiako beren emaitzarik okerre-na izan dute globalki, eta okerrera egin dute 2018ko datuekin alderatuta, matematikan eta gaitasun zientifikoan.

Zer neurri zehatz hartuko ditu kontseilariak, nafar ikasleak berriro izan daitezzen PISA txostenean emaitzarik oneneko espainiar ikasleak, 2015ean izan ziren bezala?

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti

11-23/POR-00283. Galdera, adingabeek joko-areto eta ostalaritzamakinatarako duten irispidea kontrolatzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, adingabeek joko-areto eta ostalaritza-makinatarako duten irispidea kontrolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako adingabeen % 27k harremana du ausazko jokoekin, hori legez kontrakoa bada ere.

Zer sistema abiaraziko dituzu joko-lokaletarako sarbidea eta ostalaritza-makinatarako irispidea kontrolatzeko, eta zein egunetatik aurrera ezarriko dira?

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti

11-23/POR-00284. Galdera, adingabeen pornografia-kontsumoari aurre egiteko neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, adingabeen pornografia-kontsumoari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarrearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskoletan zer neurri hartuko du kontseilariak, adingabeek pornografia kontsumitzea eragozteko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti

11-24/POR-00001. Galdera, Ondare Zerbitzuak SODENA eta Nafarroako Inbertsio Institutuaren arteko bikoiztasunak ekiditeko gomendatutako jarduketei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Ondare Zerbitzuak SODENA eta Nafarroako Inbertsio Institutuaren arteko bikoiztasunak ekiditeko gomendatutako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta Nafarroako Gobernuak ez die jaramonik egin Ondare Zerbitzuak 2022ko apirilaren 11n eginiko gomendioei, SODENaren eta Nafarroako Inbertsio Institutuaren arteko bikoiztasuna saihesteko urratsen gainekoei?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an.

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/POR-00002. Galdera, N-121 A errepidearen proiektuari buruzkoa*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, N-121 A errepidearen proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da N-121 A errepidearen proiektuaren gaur egungo egoera eta bertako jarduketa-aurreikuspenen zehaztapena?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00003. Galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko udalez gaindiko plan sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, abiadura handiko trenaren geltoki berriaren eremua eta Iruñeko tren geltoki zaharraren eremua garatzeko udalez gaindiko plan sektorialaren hirigintza-izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Noiz egingen duzu Abiadura Handiko Trenaren geltoki berriko ingurua eta Iruñeko tren geltoki zaharreko ingurua garatzeko udalez gaindiko plan sektorialaren hirigintza-izapidetzea?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-24/POR-00004. Galdera, Foruzaingoaren Jardunaldien eta Ordainsarien Erregelamenduaren onespeneri buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Foruzaingoaren Jardunaldien eta Ordainsarien Erregelamenduaren onespeneri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aintzat harturik Barneko kontseilariak nire informazio-eskariari (11-23/PEI-00387) emandako erantzuna, aitortzen al du lehendakariak ezen aurreko Barneko kontseilari Javier Remírezek behin eta berriro gezurra esan ziola Legebiltzar honi, aldarrikatuz ezinezkoa zela Foruzaingoko Lanaldi eta Ordainsarien Erregelamendua onestea, beharrezkoa zelako Estatuak horretarako gaikuntza ematea?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/POR-00005. Galdera, bidaiarien garraio publikoarendako laguntzei buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, bidaiarien garraio publikoarendako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer laguntza aurreikus-ten ditu bidaiari-garraio publikoarentzat 2024rako, eta zer xederekin?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/POR-00006. Galdera, 2023ko enplegu-datuei eta arlo horretako 2024rako jarduketa-ildoei buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, 2023ko enplegu-datuei eta arlo horretako 2024rako jarduketa-ildoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak 2023ko enplegu-datuei buruz, eta zein dira arlo honetako jarduketa-ildoak 2024rako?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00007. Galdera, autonomoei laguntzeko neurri fiskalei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, autonomoei laguntzeko neurri fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zerga-arloko zer neurri hartuko ditu langile autonomoei laguntzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-24/POR-00008. Galdera, herritarren arreta hobetzeko hartutako neurri buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, herritarren arreta hobetzeko hartutako neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balantze egiten du herritarrentzako arreta hobetze aldera hartutako neurri buruz, eta nolako jarraipena izanen du horien gauzatzeak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00009. Galdera, Emanzipa programari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Emanzipa programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafar gazteei prezio ordainerrazeko etxebizitza duin bat eskuratzen laguntzeko tresnetako bat dugu Emanzipa programa. Horregatik, talde parlamentario sozialistak galdetzen du:

2023an programa horrek izan duen garapenari buruz zer balorazio egiten du Departamentuak, eta zer aldaketa proposatzen dira 2024rako?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak

11-24/POR-00010. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxeari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Tafallako suhiltzaile-etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuaren apustueta bat dugu, Parlamentuko agerraldian adierazi zen bezala, larrialdien prebentzioa eta horien arreta. Horretarako, beharrezkoa da larrialdi-arretarako baliabide eta azpiegiturak indartzea. Ildo honetan, talde sozialistak galdetzen du:

Egun zer egoeratan dago Tafallako eskualdeko suhiltzaile-etxe berriaren eraikuntza?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-24/POR-00011. Galdera, sexu-indarkeriagatik eta tratu txarreatatik haurrei eta nerabeei arreta integrala emateko sistemari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, sexu-indarkeriagatik eta tratu txarreatatik haurrei eta nerabeei arreta integrala emateko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Fiskaltzaren 2022. urteari buruzko oroitidazkiak dioenez, "sexu-askatasunaren aurkako delituen gorakada kezkarri bat nabaritzen da; batez ere, 16 urte baino gutxiagoko biktimak dituztenena".

Zure zuzendaritzapeko departamentuak sexu-indarkeria eta tratu txarrak jasan dituzten haur eta nerabeen arreta integralerako zer sistemaren alde egiten du apustu, eta zer abiarazpen-epe aurreikusten dituzue?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-24/POR-00012. Galdera, N-121 A errepidea hobetzeko eta egokitzeko lanei buruzkoa

JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, N-121 A errepidea hobetzeko eta egokitzeko lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer fasetan daude N-121 A errepidea hobetu eta egokitzeko obrak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/POR-00013. Galdera, ibilgailu hibrido eta elektrikoen matrikulazioa sustatzeko neurriei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, ibilgailu hibrido eta elektrikoen matrikulazioa sustatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpre-

sen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Automobil elektriko eta hibridoaren salmentari buruz ezagutu diren azken datuek gorakada bat agertzen dute, halako moldez non erreklamazioak aldea murrizten baitoa.

Gorakada horretan funtsezko zeregina izan dute, dudarik gabe, aurreko urteetan hartutako zerga-neurriek, bai eta abian jarritako laguntzek ere, hain zuzen paradigma-aldaketa horren bila.

Hori dela-eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetzen diogu:

Automobil elektrikoaren eta hibridoaren merkaturak hedatzen segitze aldera, zein dira hasi berri den urte honetan aplikatu beharreko neurriak eta jarritako helburuak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00014. Galdera, etxebizitzaren alokairuaren merkatuari buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, etxebizitzaren alokairuaren merkatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren (PPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, etxebizitza-aloairuaren merkatuan dagoen desdoitasun handia zuzentze aldera?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00015. Galdera, Nafarroan enplegu-eskatzaileen kopuruak izandako igoerari buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroan enplegu-eskatzaileen kopuruak izandako igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren (PPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeren ondorio da Nafarroan azken bi urteotan enplegu-eskatzaileen kopuruan izan den gorakada nabarmena?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00016. Galdera, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatiboari buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatiboari buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari, ahoz erantzun dadin urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran, datorren ostegunean:

4/2023 Foru Legeak, martxoaren 9koak, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoak, halako jardute-esparrua ezarri zuen zeinak Nafarroa erki-dego aitzindari bihurtu baitzuen justizia errestitatiboaren alorrean. Alabaina, legearen atal desberdinetan beharrezkotzat ezartzen zen gero batean erregelamenduzko garapen bat egitea. Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Zer prestatze-fasetan daude Justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legearen erregelamenduak, eta zer egutegi aurreikusi da arau horiek onesteko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00017. Galdera, Eliza Katolikoak erregistratutako ondasunak Hipoteka Legearen 206. artikuluan ezarritakoaren babesean berreskuratzeari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Eliza Katolikoak erregistratutako ondasunak Hipoteka Legearen 206. artikuluan ezarritakoaren babesean berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Justizia eta Barneko kontseilariak urtarrilaren 11ko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri edo ekintza abiarazteko asmoa du, berreskuratze aldera Eliza Katolikoak Hipoteka Legeko 206. artikuluan xedatzen denaren babesean erregistraturiko halako ondasunak, zeinak Nafarroako lurraldean kokatuta baitaude?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an.

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-24/POR-00018. Galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Hirugarren Sektoreari buruzko Legea prestatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hirugarren sektorea funtsezko osagarri dugu Nafarroaren gizarte-politiken garapenean. Gobernuari dagokio haren funtzionamendua arautzea, finantzaketa-eredua hobetuz, haren solaskidetasuna bermatuz, sare-lana optimizatuz eta abar. Hori dela-eta, zer unetan aurkitzen da programakordioan jasotako Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen prestatze-prozesua, eta nola bermatuko da partaidetzako prozesu baten bidez egitea haren taxuketa?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/POR-00019. Galdera, Nafarroari dagokionez PSOEek eta EH Bilduk Pedro Sánchez inbestitzeko lortutako akordioei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroari dagokionez PSOEek eta EH Bilduk Pedro Sánchez inbestitzeko lortutako akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira, Nafarroari dagokionez, PSOEek EH Bildurekin Pedro Sánchez inbestitzeko lortu zituen akordioak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00020. Galdera, saltoki handiek igande eta jaiegunetan irekitzeari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, saltoki handiek igande eta jaiegunetan irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 33. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Foru Komunitatean igandeak ez dira baliodunak izanen merkataritza jarduerarako, espresuki baimendurikoak salbu.

Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak, azaroaren 1a baino lehenago, Nafarroako Merkataritzaren Kontseiluari entzun ondoren, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak.

Azken asteotan jaiegun asko izan dira, eta pasa den igandean, urtarrilak 7, saltoki asko irekita egon ziren.

Zenbait sindikatuk behin eta berriro eskatzen dute jaiegunetan itxeko eta malgutasunez jokatzeke Nafarroako Merkataritza Kontseiluak adosturiko egutegian. Urtarrilaren 7an ireki zuten merkataritza-guneetako zenbait langilek ere protesta egin zuten.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dugu:

Nafarroan merkataritza arautzen duen legea aldatzeko asmoa iragarri da. Zure departamentuak aldaketarik eginen al du igande eta jaieguneetan irekitzeko murrizketak ezartzeari begira?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00021. Galdera, Nafarroako edukiera handiko errepideetako bidesarien politikari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Nafarroako edukiera handiko errepideetako bidesarien politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite jaunak urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen darabil Lurralde Kohesiorako kontseilariak Nafarroako edukiera handiko errepideetako bidesariei eta Nafarroako garraio-sektoreari eman beharreko laguntza-neurriei dagokionez?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00022. Galdera, PSOEren eta EH Bilduren arteko akordioen ondorioz Nafarroak izanen dituen onurei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, PSOEren eta EH Bilduren arteko akordioen ondorioz Nafarroak izanen dituen onurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer onura dituzte Nafarroarentzat PSOEk EH Bildurekin lortu dituen akordioek?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00023. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako herri-ondasunak identifikatzeko prozesuari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako herri-ondasunak identifikatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2024ko urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2021eko azaroan, Eliza Katolikoak 1900. urteaz geroztik immatrikulatutako ondasunei buruzko txosten sakona aurkeztu zen Parlamentu honetan. Txosten hori aurkeztu ondoren iragarri zen Landa Garapeneko Departamentuak Eliza Katolikoak immatrikulatutako herri-ondasunak identifikatzeko prozesu bat zuzenduko zuela.

Zertan da Eliza Katolikoak immatrikulatutako herri-ondasunak identifikatzeko prozesu hori?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak,

11-24/POR-00024. Galdera, 0-3 zikloaren doakotasunari buruzkoa*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako galdera, 0-3 zikloaren doakotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko urtarrilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zer dakarkio hezkuntza publikoari 0-3 zikloaren doakotasunak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00025. Galdera, Iruñean onetsitako zentsura-mozioari buruzkoa*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Iruñean onetsitako zentsura-mozioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakaria zaren heinean uste al duzu Iruñean onetsitako zentsura-mozioa lagungarria dela zuk Nafarroan legegintzaldi honetarako helburu gisa jarritako bizikidetza eta aurrerabidea lortzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

